

Familia maiteak.

Lehenik eta behin, hastear dagoen kurtso berezi honi indar eta ilusiorik handienarekin ekingo diogula adierazi nahi dizuegu. Zalantzas josia eta erronkaz josia datorren arren ziur gara denon artean era egokian kudeatu ahal izango dugula.

Une honetan, bi helburu nagusi ditugu:

- Ikasleen **heziketa** beharrei modu egokian erantzutea.
- Hezkuntza komunitatearen Osasuna **zaintzea** eta Covid-19aren **hedatzea ekiditea**.

Bi erronka hauek, ahalik eta hobekien uztartzeko, ikastetxeko kontingentzi planaren laburpen bat doakizue, zuentzako premiazko informazioa.

Lehen eguneko ordutegia hauxe izango da:

Haur Hezkuntza: 3 urte	Haur Hezkuntza 4-5 urte	Lehen Hezkuntza 6-12 urte
-Gela erdia 10:00-11:00. -Beste erdia 11:30- 12:30.	10:30-12:30	10:00-12:30

Gogorarazten dizuegu irailaren 8tik 18ra arte goizeko asteak izango direla (9:00etatik 12:30ak arte). Irailaren 21etik aurrera ohiko ordutegiarekin hasiko gara (9:00etatik 12:30ak arte eta 15:00etatik 17:00etara). Aldaketaren bat egin beharko balitz, aurretik komunikatuko genizueke.

Zerrendak. Gela bakoitzeko zerrendak **EDUCAMOS plataforman** ikusgai izango dituzue irailaren 2an 10:00etatik aurrera. Aurreko urtetan eskolan jartzen bagenituen ere, aurreko ezingo dugu horrelakorik egin ikastetxean sartzea ekidin behar delako.

Garbitasun neurriei dagokionean:

- Gelak ahalik eta gehien aireztatuko dira.
- Sei urtetik aurrera maskara (higienikoa) uneoro egoki jantzita eramango da. Maskara ekartzen ez duenak ikastetxean berria eskuratuko zaio (prezioa €1).
- Eskola aldian eskuak maiz garbituko dituzte (5 aldiz garbitzea gomendatzen da). Gel hidroalkoholikoa eta xaboia erabiliko ditugu.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea saihestu behar da, eta eztul edo doministiku egitean ahoa eta sudurra ukondoarekin estaliko dira.
- **Janaria edo edalontziak ezin izango dira partekatu.** Bakoitzak bere hamaiketakoa ekarriko du eta edateko bere botila. Ura ikastetxeko iturrietan bete ahal izango da.

Ikastetxeko instalakuntzen erabilera. Gelak bizikidetza talde egonkorak izango dira eta ikasleak euren taldekoekin erlazionatuko dira.

- **Sarrerak.** Ikaslea eskolara ekartzen duenak ondorengo lekuetan utziko du tutorearen esku eta zuzenean alde egingo du.

Haur Hezkuntza (3 urte)	Haur Hezkuntza (4-5 urte)	LHko 1. eta 2. mailak	LHko 3., 4., 5. Eta 6. mailak
3 urteko gelan sartzeko kanpo aldetik dagoen kristalezko atean.	Frontoian	Kiroldegian	Jolastokian (ohi bezala)

- **Korridore eta eskaileretan** eskuinetik eta seinaleei kasu eginez ibiliko gara.
- Komunak. Gela bakoitzeko ikasleek adieraziko zaien komuna erabiliko dute.
- **Idazkaritzan** harrera kristalezko leihatilatik egingo da eta zain dagoenak 1,5 metroko distantzia errespetatuko du. Eskolan sartzeko hitzordua eskatu beharko da.
- **Gelan**, mahaiak banaka kokatuko dira eta bakoitzak bere mahai eta aulkia izango ditu eta beti horiek erabiliko ditu.
- Ikastetxean **materiala** ezingo da partekatu, bakoitzak berea izango du eta etxera eramatea saihestuko da.
- Familiak, irakasle batekin hitz egin ahal izateko, hitzordua eskatu beharko du.
- **Jolasgaraietan** talde bakoitzak leku bat izango du eta gelan bezala taldekoen artean erlazionatuko dira. Ezingo izango dira ohiko materialak erabili (baloia, sokak...).
- **Zerbitzuak.** Eusko Jaurlaritzatik bidalitako protokoloari jarraituz ezin izango ditugu ohiko zerbitzu guztiak eskaini.

Jangela	BAI , bizikidetza taldeetan (Protokolo propioa dauka).
Haur Txokoa (goizekoa zein arratsaldekoa)	EZ
Eskola orduz kanpoko ekintzak	EZ

Covid-19aren kudeaketari dagokionean, protokolo hau jarraituko dugu:

Ondorengo egoera hauetakoren batean daudenak, ezin izango dira ikastetxera joan:

- Sintoma hauetakoren bat izanez gero:
 - 37 gradutik gorako sukarra.
 - Eztul idorra.
 - Eztarriko mina,
 - Arnasa hartzeko zailtasuna,
 - Usaimen edo dastamenik eza.
- COVID19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenak.
- Etxeko berrogeialdian daudenak.

Ikastetxean daudela aurreko sintomarik agertuz gero:

- Horretarako prestatutako isolamendu-gelan egongo da.
- Ikastetxea ikaslearen familiarekin harremanetan jarriko da berehala, etxera eraman ahal izateko. Komeni da familiekiko telefono zenbakien informazioa eguneratuta egotea EDUCAMOS plataforman.
- Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.

Kasuak baieztatuz gero:

- Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen **guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari.**
- Kasua baieztatzen bada, **Covid19 arduraduna** Osakidetzarekin harremanetan jarriko da behar diren urratsak emateko.

Ikusten duzuenetz, neurri eta arau ugari dira. Denbora eta ahalegin handia eskainiko diogu ikasleek erarik errazenen hau guztia ezagutu eta barnera dezaten. Kontuan hartu behar dugu baita ikasleen ongizate emozional eta soziala zaintzea are garrantzitsuagoa dela egoera honetan. Beraz, gure esku dagoen guztia egingo dugu helburu hori lortzeko.

Aipatutako neurri horietako batzuk zehazteko eta egokitzeko beharra sor liteke prozedura guztia martxan jartzen hasten garenean. Egoera hau modurik egokienean kudeatzeko, garrantzitsua da hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa. Horregatik, zuen ekarpenak ere oso garrantzitsuak dira. Aholku, proposamenik edo zalantzarik izanez gero, Gurasoen elkartearen bidez, telefono bidez edo herrikide3-12@herrikide.eus posta elektronikoen bidez helarazteko aukera daukatzue.

Bukatu aurretik, beste behin ere bihotzez zuen laguntza eta kolaborazioa eskertu nahi ditugu. Jaso ezazue gure agurrik zintzoena.

Zuzendaritza Taldea

Queridas familias.

En primer lugar, queremos deciros que vamos a afrontar este curso tan especial que está a punto de comenzar con gran energía e ilusión. Aunque viene plagado de dudas y de retos estamos seguros de que entre todos podremos gestionarlo del modo más conveniente

En este momento, tenemos dos objetivos principales:

- Responder adecuadamente a las necesidades educativas del alumnado.
- Velar por la salud de la comunidad educativa y evitar en lo posible la propagación del Covid-19.

Para afrontar con las mayores garantías estos dos retos, os adjuntamos un resumen del plan de contingencia del centro, con la información más necesaria para vosotros.

El horario del primer día será el siguiente:

Educación Infantil: 3 años	Educación Infantil 4-5 años	Educación Primaria 6-12 años
La mitad del grupo 10: 00-11: 00. La otra mitad 11: 30-12:30.	10: 30-12: 30	10: 00-12: 30

Os recordamos que del 8 al 18 de septiembre serán semanas de horario matinal (de 9:00 a 12:30 horas). A partir del 21 de septiembre comenzaremos con el horario habitual (de 9:00 a 12:30 y de 15:00 a 17:00). Si hubiera que hacer algún cambio, os lo comunicaremos con anterioridad.

Listados. Los listados de cada aula estarán disponibles en la **plataforma EDUCAMOS** el 2 de septiembre a partir de las 10:00 horas. Aunque en años anteriores los exponíamos en la escuela, este año no podremos hacerlo porque hay que evitar en lo posible las aglomeraciones.

Medidas de limpieza:

- Las aulas se ventilarán frecuentemente.
- A partir de los seis años la máscara (higiénica) se llevará en todo momento correctamente colocada. A quien no traiga la máscara se le facilitará una nueva en el

centro (precio €1).

- Se lavarán las manos con frecuencia (se recomienda lavarse 5 veces). Utilizaremos gel hidroalcohólico y jabón.
- Hay que evitar el contacto con los ojos, la nariz y la boca, y al toser o estornudar se cubrirán la boca y la nariz con el codo.
- La comida o los vasos no se podrán compartir. Cada uno traerá su almuerzo y su botella. Las botellas se podrán rellenar en el centro.

Uso de las instalaciones del centro. En cada una de las aulas habrá un grupo de convivencia estable, de modo que los alumnos de ese grupo se relacionarán entre ellos.

- **Entradas.** La persona que acompañe al alumno al colegio lo dejará con el tutor en los siguientes lugares y se marchará directamente.

Educación Infantil (3 años)	Educación Infantil (4 y 5 años)	1º y 2º curso de Ed. Primaria	3º,4º,5º y 6º de Ed. Primaria
Puerta de cristal que da acceso directamente al aula de 3 años.	Frontón	Polideportivo	Patio (en el lugar habitual)

- **Pasillos y escaleras.** Circularemos por la derecha y atendiendo a las señales.
- **Aseos.** Los alumnos de cada aula utilizarán el baño que se les asigne.
- En **recepción** se atenderá desde la ventanilla acristalada y en caso de que haya cola, se respetará la distancia de 1,5 metros. Para entrar en la escuela es necesario pedir cita previa.
- En el **aula**, cada alumno dispondrá de su propia silla y mesa, y siempre serán de uso exclusivo. No se podrá compartir material, cada uno tendrá el suyo y se evitará llevarlo a casa.
- Para poder hablar con el tutor, la familia tendrá que pedir cita previa.
- En el **recreo** cada grupo tendrá un espacio asignado, y al igual que en el aula se relacionarán entre los de ese grupo. No se podrá utilizar el material habitual (balón, cuerda).
- **Servicios.** Atendiendo al protocolo enviado desde el Gobierno Vasco no podremos ofrecer todos los servicios habituales.

Comedor (protocolo propio).	SI , en grupos de convivencia
Haur Txoko (tanto de mañana como de tarde)	NO
Actividades extraescolares	NO

En cuanto a **la gestión del Covid-19**, respetaremos el siguiente protocolo:
No podrán acudir al centro:

- En caso de padecer alguno de los siguientes síntomas:

- Fiebre superior a 37 grados.
- Tos seca.
- Dolor de garganta,
- Dificultad respiratoria,
- Ausencia de olfato y/o gusto.

- Quienes tras ser diagnosticados de COVID19 estén en aislamiento .

- Quienes estén en cuarentena doméstica.

En caso de aparición de síntomas en el propio centro:

- Se le acompañará a la sala Covid (sala habilitada al efecto).

- El centro se pondrá en contacto inmediatamente con la familia del alumno para poder llevarlo a casa. Es conveniente que los números de teléfono de las familias estén actualizados en la plataforma EDUCAMOS para poder contactar con la máxima facilidad.

- La familia se pondrá en contacto con su centro de salud para cumplir las instrucciones que se le faciliten.

En caso de Covid confirmado:

- Los padres o tutores del alumno o alumna detectados como caso positivo lo comunicarán inmediatamente a la dirección del centro.

- Si se confirma el caso, el responsable Covid19 se pondrá en contacto con Osakidetza para cumplir las instrucciones que se nos faciliten.

Como veis, son muchas las normas y medidas a adoptar. Por ello, los primeros días dedicaremos mucho tiempo a que el alumnado aprenda e interiorice este nuevo modo de funcionamiento, que no es fácil. Además, somos conscientes de la importancia del bienestar emocional, social de nuestros niños y niñas por lo que pondremos en juego todo lo que está en nuestra mano para conseguirlo.

Al comenzar a funcionar de este modo, podría surgir la necesidad de concretar y adaptar algunas de estas medidas. Por otra parte, para poder cumplir este protocolo de la manera más adecuada, es importante la implicación de toda la comunidad educativa. Por eso también son importantes las aportaciones de las familias. Si tenéis algún consejo, propuesta o duda podéis hacerlo llegar a través del AMPA, por teléfono o a través del correo electrónico herrikide3-12@herrikide.eus

Para finalizar, una vez más os queremos agradecer de corazón vuestra comprensión y colaboración. Recibid nuestro más cordial saludo.

Equipo Directivo